

# KUL TUR

EKAINAK 23 · IRAILAK 9

2017





BERA

ZUGARRAMURDI

LESAKA BERTIZ

DONAMARIA

ELIZONDO

LEKUNBERRI

ORREAGA/

RONCESVALLES

IZABA

ALTSASU/  
ALSASUA

LIZASO

ORBAIZETA

ERRONKARI

OLAZTI/OLAZAGUTÍA

AGOITZ

OTSAGABIA

IRANTZUKO MONASTERIOA

ESTELLA/LIZARRA

LEIREKO MONASTERIOA

GARES

ZANGOZA

ARTAJONA

MENDIGORRIA

VIANA

LOS ARCOS

TAFALLA

XABIER

LODOSA

ERRIBERRI

UXUE

MARCILLA

AZAGRA

LA OLIVAKO  
MONASTERIOA

VALTIERRA

CORELLA

FITERO TUDELA

RIBAFORADA

# KULTUR

2017 EKAINAK 23 · IRAILAK 9

KULTUR Kultura, Kirola eta Gazteri Departamentuak, Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiaren laguntzaz antolatzen duen programa bat da.

Jarduera-programa uda guztian zehar garatzen da, **ekainaren 23tik irailaren 9ra bitarte, 38 herri eta intereseko lekutan**. Horretan, musika, dantza, arte eta jarduera turistikoaren arloetako programazio zabala eta ugaria eskaintzen da.

**Ostegun, ostiral eta larunbatetarako**, kontzertu erakargarri bat eskaintzen du programazio artistiko gisa, eta, haren osagarri, turismo arloko jarduera bat.

Arte plastikoak eta, bereziki, pintura nabarmentzen dira KULTUR-eko programazio artistikoan; izan ere, hiru erakusketa interesgarri egingen dira Agoitzen, Bertizko Jaureirian eta Tafallan.

**Tafallan, ekainaren 30etik uztailaren 25era, Abigail Lazkoz** egonen da *Biodône* lanarekin; **Bertizen, uztailaren 20tik irailaren 4ra, Begoña Antónek**, Lauvageren laguntzarekin, *Haiek Danak Sorginak-Todas Ellas Brujas* proiektua erakutsiko du; eta, **Agoitzen, abuztuaren 4tik 30era, Luis Vassallok** *Cuaderno de verano* obra-bilduma aurkeztuko du.

## EKAINA

23 OR

**Tafalla**

**ELFENTHAL OPERA  
ROCK**

Centro Cultural  
Tafalla Kulturunea\*  
20:30

24 LR

**Bera**

**KHERAU**

Plaza  
20:30

29 OG

**Olazti**

**TIPITAKO**

Sarasate Plaza  
20:00

30 OR

**Uxue**

**LA SOLEDAD  
DE BERNARDA**  
ARANTXA VILLANUEVA  
DANTZA KONPAINIA

Plaza  
22:00

## ERAKUSKETAK:

**Tafalla BIODÔME** Abigail Lazkoz

Centro Cultural Tafalla Kulturunea, ekainaren 30etik uztailaren 25era

**Bertiz HAIEK DANAK SORGINAK** Bego Antón

Bertziko Jaurreiriaren parke naturalean, Lorategi historikoa,  
uztailaren 20tik irailaren 4ra

**Agoitz CUADERNO DE VERANO** Luis Vassallo

Kultura Etxea, abuztuaren 4tik 30era

\*Tafalla / prezioa: 10 € / Sarrerren salmenta: [patronbase.com/\\_Tafalla/Productions/](http://patronbase.com/_Tafalla/Productions/)

\*\*Zugarramurdi / leizera sartzeko prezioa: 4 €

## UZTAILA

1 LR

**Fitero**

**ALBERTO ARTETA  
GROUP**

Malvas Plaza  
21:00

6 OG

**Zugarramurdi**

**IGELAREN BANDA**

Sorginen leizea\*\*  
18:00

7 OR

**Orbaizeta**

**THE  
DISAPPOINTMENTS**

Pilotalekua  
19:00

8 LR

**Orreaga/  
Roncesvalles**

**ERKUDENGO AMA  
ABESBATZA,  
ALTSASUKOA**

Kolegiatako eliza  
19:00

13 OG

**Gares**

**LAZY DAISY BAND**

Mena plaza  
20:00

14 OR

**Estella/Lizarra**

**MAFALDA**

Foruen plaza  
21:00

15 LB

**Otsagabia**

**BROKHEM  
BROTHERS BRASS  
BAND**

Plaza  
22:00

20 OG

**Artajona**

**GREGARIO DE LUXE**

Quinta parkea  
20:00

21 OR

**Errokari**

**LOU TOPET**

Pilotalekua  
20:00

22 LB

**Valtierra**

**CON X THE BANJO**

Esperanza parkea  
21:30

27 OG

**Marcilla**

**ISEO &  
DODOSOUND**

Gaztelua  
20:00

28 OR

**Lekunberri**

**SOUL MEETING**

Plaza  
20:00

29 LB

**Los Arcos**

**ALOS QUARTET**

Plaza  
21:00

## ABUztua

3 OG

**Viana**

**JEREZ TEXAS**

San Pedroko hondakinak  
21:00

4 OR

**Elizondo**

**DANTZAZ**

Plaza  
20:30

5 LB

**Altsasu/Alsasua**

**FIX THIS**

Dantzaleku  
21:00

**Irantzuko  
Monasterioa**

AHOTS BAXUEN  
**SANTA MARIA  
LA REAL  
ABESBATZA**

Eliza  
12:00

10 OG

**Corella**

**FRANK**

Foruen plaza  
21:30

11 OR

**Izaba**

**XABI  
ABURRUZAGA**

Anfiteatroa  
20:30

12 LB

**Xabier**

**JORGE NEGRETE**  
UN MUSICAL LINDO  
Y QUERIDO

Auditorioa  
12:00

17 OG

**Donamaria**

**LURPEKARIAK**

Jauregia dorretxea  
20:00

18 OR

**Zangoza**

**SULTANS OF WING**  
DIRE STRAITS TRIBUTOA

Arcadas plaza  
23:00

19 LB

**Lizaso**

JASO-ESCRICH-GIMENEZ  
**PIAZZOLLA  
180 GRADOS**

Orgiko oihana  
12:30

24 OG

**Agoitz**

**OROITZAPEN  
HUTSAK**

OBERENA DANTZA TALDEA  
Kultura Etxea  
21:00

25 OR

**Lodosa**

**CELTIC ROCK  
& REELS**

Espainiako Plaza -  
pasealekua  
22:00

26 LB

**Azagra**

**PRIMITIVE  
GROOVES**

Foruen plaza  
20:00

**La Olivako  
monasterioa**

**ARANGUREN  
IBARREKO  
ABESBATZA**

Eliza  
19:00

31 OG

**Erriberri**

**ON PROYECT &  
AMAIA ELIZARAN**

Karlos III.a Prestuaren  
plaza  
20:00

## IRAILA

1 OR

**Lesaka**

**TENPORA**

Plaza  
20:00

2 LB

**Leireko monasterioa**

**ELKHOS  
AHOTS TALDEA**

Eliza  
19:45

7 OG

**Mendigorria**

**MIKEL  
GAZTELURRUTIA  
TRÍO**

Gizarte Etxea  
20:00

8 OR

**Tudela**

**IÑAKI ASKUNZE  
& BOB SANDS  
BIG BAND**

F. GARCÍA LORCAREN ALDEKO  
OMENALDI KONTZERTUA

Alfonso el Batallador  
plaza  
20:30

9 LB

**Ribaforada**

**O' CAROLAN**

Caballeros Templarios  
kalea (Barranco)  
22:30

# 23 OSTIRALA ELFENTHAL OPERA ROCK

Tafalla / 20:30 / Centro Cultural  
Tafalla Kulturgunea  
Prezioa: 10 €

**Maite Itoiz & John Kelly** egonen dira programan, **Elfenthal** taldearekin batera, eta kontzertu-ikuskezun bat eskainiko dute, adin guztietarako prestatua; hartan, musikari handiak –bai rock sendoenetik bai mundu klasikotik datozenak– elkarrekin ariko dira musika-leherketa zoragarria eskaintzen: rock sinfonikoa, zelta, erdi arokoa, musika neoklasikoa eta fantasiatzkoa, eta hori guztia **Elfenthal** taldeko ahots eta instrumentu paregabeen laguntzaz. Soprano eta ekoizle nafarrak (amaren aldetik sustrai tafallarrak ditu) arrakasta handia lortu du 2006tik Europan, proiektu horren zuzendari gisa; izan ere, lehen postuan egon da Alemanian, eta, besteak beste, honako hauekin aritu da: **Robin Gibb, André Rieu, Scorpions...**



Harpa zelta, biolontxelo, flautak, gitarra elektrikoak eta bateria sendoa; horiek guztiak, besteak beste, ariko dira lanean bandak nazioarteko ibilbidean emandako 10 urteetan sortutako erreperatorioko lan onenak eskaintzeko.





## 24 LARUNBATA **KHERAU**

**Bera / 20:30 / Plaza**

Kherau boskote bizkaitarrak 2007ko udaberrian hasi zuen ibilbidea, euskal kantu eta melodia herrikoiek erakarrita. Hasiera-hasieratik erakutsi dute tema propioen eta kantu herrikoien arteko oreka gordetzeko nahia, eta ukitu garaikide bat eman diete azken horiei; era berean, pop-rock estilotik hurbil dauden tema propioak sortu dituzte musika-instrumentu tradizionalak erabiliz, hala euskal kulturakoak nola beste kultura batzuetakoak.

Zuzeneko emanaldietan, indar ikaragarria erakusten dute, baina tempo lasaiko temek ere lekua aurkitzen dute, giro intimistaren eta erreperitorio gogorraren arteko kontrastea eginda. Kontzertu bakoitzari ikuspegi berezi bat ematen ahalegintzen da boskotea, eta, hortaz, maiz aldatzen dute eszenaratzeko modua. Bertsolaritzak eta olerkiak ere lekua hartu ohi dute emanaldietan.



## 29 OSTEGUNA TIPITAKO

**Olazti / 20:00 / Sarasate plaza**

Tipitakok hirugarren lana plazaratu du: *Sonido de Bolsillo*. Tipitakoren proiektu berriak estilo-sorta zabala eskaintzen du, rock musikatik rumba flamenkora joanda, betiere faktore komun bat dutela: Tipitakoren soinu berezia.

Konposizio-prozesua entseguen eta kontzertuen artean sortzen zen; eta, kantuak abiarazteko unean, erabakigarriak izan ziren gustura emandako tarreak eta kide bakoitzaren eragin zabala tema bakoitza musikalki zehazteko. Konposatu ahala, gainezka egiten zuten kantu horiek. Bandak zenbait musikariren kolaborazioak izan ditu, beren harri-koskorra ekarri nahi izan baitute; haien artean, nabarmentzekoa da **Chiki Loraren** kolaborazioa *Gotas de Amor* teman. Tipitakok esker onez hartu zuen Malagako artistaren parte-hartzea, esentzia musikal handia transmititu baitu azken urteotan ospe handiko **Canteca de Macao** bandan; izan ere, talde hori erreferente bat da panorama musikalean.

Zenbait estudioetan ekoitzi da *Sonido de Bolsillo* lana, instrumentu bakoitzarentzat egokia zen soinua bilatu baita; horrela, nahasketa eta master lanak Punta Paloma (Cádiz) grabazio-estudioetan egin dira, eta proiektua

Jose M<sup>a</sup> Sagristaren eskuetan utzi da, harekin elkarlanean aritu diren artista ospetsu batzuen ibilbide handia aintzat hartuta.



**Mami tailerra eta esnekien dastaketa**

17:00etatik 18:30era / 1h 30'

Quesería Sarabe. Txorralde 2. 31810 Urdiain.

Prezioa: 12 € heldua, 5 € haurra

Erreserbak:

T. 699 938 356 / sarabetxokoa@gmail.com

## 30 OSTIRALA LA SOLEDAD DE BERNARDA ARANTXA VILLANUEVA DANTZA KONPAINIA

**Uxue / 22:00 / Plaza**

**Arantxa Villanueva** dantza-konpainiak hamar urtetik gorako bidea darama mugimendua adierazpen-tresna bilakatzen sentimenduak, sentsazioak, ezinegonak eta bitxikeriak plazaratzeko. Istorioak kontatzen ditu, ikuslea harrapatzen duten tema musikalez lagundurik; gainera, eszenaratzea ikus-entzunezko teknika batez aberasten du, zeinak ez baitu inor ez hotz ez bero utziko. Oraingo honetan eta **Federico García Lorcaren** obraren eskutik, oso urrun ez dagoen iragan batera eramaten gaitu, eta zenbait emakumek Espainiako herrietan bizi duten drama erakusten du. Testu horren bost eszenak, bost une emblematikok errealitate idor eta gogor bat gogorarazten digute, egileak sentsibilitate handi batez kontatuta. Erronka handi horretan, **Marta Juániz** aktorearen laguntza izan dute, ahotsa eskaini baitu, baita protagonisten





anteztearena ere. Hori guztia Uxueko paraje paregabea, non Lorcaen testuan islatutako giroa primeran islatzen baita.



### Bisita gidatua gotorleku-elizara

17:30 / 1h 15'

Elizako atea.

Prezioa: 3 €

Erreserbak:

visitaujue@gmail.com



1 LARUNBATA

## ALBERTO ARTETA GROUP

**Fitero / 21:00 / Malvas plaza**

Alberto Arteta Group boskote bat da, herrialdeko jazz-musikari eskatuenek osatutakoa; proiektuak *BBK impulso* saria jaso du berriki, bere kalitate, originaltasun eta freskuragatik. Boskoteak jazz gaurkotu eta fresko bat proposatzen du, eta, horretan, inprobisazioak eta bandako kideek elkarri entzuteko joerak funtsezko eginkizuna jokatzen dute. *Bat* diskoaren

arrakastaren ondoren, *the legacy* disko berria eskainiko dute, entzuleak musikaz liluratzen jarraitzeko asmoz.

#### KIDEAK:

Alberto Arteta: saxoa / Luis Giménez: gitarra / Satxa Soriazu: pianoa / Kike Arza: kontrabaxua / Juanma Urriza: bateria



### Bisita gidatua Fiteroko monasteriora

12:00 / 1h

Monasterioko elizako atea.

Erreserbak:

T. 948 776 600 / turismo@fitero.es



## 6 OSTEGUNA

### IGELAREN BANDA

**Zugarramurdi / 18:00 / Sorginen leizea**

Igelaren Banda 1998an sortu zen, eta 2000. urtean editatu zuen lehen diskoa. Egungo kideak 2011ko udaberrian hasi ziren elkarrekin: **Bixente Martinez**, gitarra, **Hasier Oleaga**, bateria, eta **Amaiur Cajaraville**. 2013ko martxoan, *Preguntatxo bat* (Elkar KD 889) diskoa aurkeztu zuen. Orduz geroztik, hainbat kontzertu eskaini izan ditu. Horien artean, Donostiako *Jazzaldian*, Bartzelonako *EH Sona* (2013) jaialdian eta Bilboko *Loraldian* (2015). Era berean, 2013ko *Bertsolari Txapelketaren* sintonia konposatu eta grabatzeaz arduratu zen. 2015eko udazkenean, *Debalde festa* (Elkar KD 936) diskoa aurkeztu zuten, bertsolariek gehien erabiltzen dituzten melodiei eskainia oso-osorik. Diskoan, melodia tradizionalak aurki daitezke, hala nola *Xarmangarria zira* eta *Erreguetan*, eta gaur egungo musikariek konposatutako melodiak ere; adibidez, *Ilun ikarak*, *Imanolena*, edo *Ezin ahaztu*, *Oskorrirena*.



**Bisita Sorginen leizeara eta museora**

11:00etatik 19:00etara / Museoa: 11:00etatik 18:30era libre

Leizeko harrera-lekua

Prezioa: 4,50 € heldua, 2 € haurra (6-12 urte bitarte)

Erreserbak:

T. 948 599 004 / [info@zugarramurdi.es](mailto:info@zugarramurdi.es)

## 7 OSTIRALA

### THE DISAPPOINTMENTS

**Orbaizeta / 19:00 / Pilotalekua**

The Disappointments (Dezepzioak) Hammond organoan eta musika beltzaren eragine-tan oinarritutako musika-talde bat baino gehiago ere bada. Esan dezakegu egoera psikologiko bat dela, erritmoa eta musika sentitzeko modu bat, baina, batez ere, zuzenean interpretatzeko modu bat. Osaera klasikoa du, hots, bateria, baxua, gitarra eta Hammond organoa, eta, han, Soul, Bebop, Blues, Northern Soul eta Modjazz estiloen eragin garbiak antzematen dira. Konposizio propioetan hainbat eragin ezagun sumatzen dira, hala nola Jimmy Smith, Lou Donaldson



edo Booker T. & The MG's musikarietak; beste tema batuetan, berriz, soinu beltz zinematografikoak antzeman daitezke: Shaft, Bullitt, Dirty Harry edo Starsky and Hutch, besteak beste. The Disappointments taldeak latitude hauetan hain ezohikoa den genero horren bertsio instrumental bat proposatzen du. Hona hemen emaitza: entzuleek aise berenganatzeko moduko musika bat, dantzagarria, energia handikoa eta suhartasunez betea.



**Bisita gidatua: Irati ilargiaren argitan: piknik-afaria izarrei begira**

19:00etako kontzertua bukatu eta gero / 2h  
Orbaizetako sarrera.

Prezioa: 10 €

Erreserbak:

T. 660 26 87 50 / itarinatura@itarinatura.com

8 LARUNBATA

## ERKUDENGO AMA ABESBATZA, Altsasukoa

**Orreaga-Roncesvalles / 19:00 / Kolegiatako eliza**

Erkudengo Ama abesbatza 1982an sortu zen, Altsasun. Erkuden parajeen dagoen Ama Birjinari eskainitako ermita batetik datorkio izena. Gabriel Alegría izan zen lehen zuzendaria. Geroago, Sara Salazar eta Lourdes Macho aritu ziren, eta, 1997. urteaz geroztik, Inmaculada Arroyo aritzen da horretan. 42 pertsonak osatuta dago,

eta Nafarroako Gobernuaren hainbat kultura-programaziotan aritu da, baita Euskal Herriko zenbait herritan ere. *Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketako* Abesbatza Gazteen atalean parte hartu zuen, eta trukeak egin izan ditu Rota, Montblanc, Medina De Pomar, Azkoiti, Oñati, Argentina eta beste abesbatza batzuekin. 2007ko irailean, Nafarroako Abesbatzen Federazioaren CDaren *-Gabon Kantak-* lehen kantua grabatu zuen. 2008ko abuztuan, bidaia bat egin zuten Vienara, eta Austriako zenbait herritan eta hiriburuko zenbait agertokitan aritu ziren. Urte hartako azaroan, Nafarroako Abesbatzen Federazioaren ordezkari aritu zen *Euskal kantak* jaialdian, Amurrrion. Abenduaren 5etik 8ra bitarte, *Nazioarteko 2. Biltzar Etno-historiko eta Musikalean* parte hartu zuen, abesbatza gonbidatu gisa, Orosein (Sardinia). 2009ko maiatzean, Nafarroako Gobernuaren *Vianako Printzea* saria **Agustín González Acilu** musikariari emateko ekitaldian parte hartu zuen. Urte hartako azaroan, bestetik, Cudillerora (Asturias) bidaiatu zuen, *Añoranzas de Cudillero Habanera* eta *Itsas Kantuen Nazioarteko Lehiaketan* parte hartzeraz gonbidatu baituzten. 2011ko abuztuko lehen astean emanaldi-bira bat egin zuen Méridan eta Setúbalen (Portugal).



**Bisita gidatua Orreagako multzora eta altxor-museora**

17:00 / 1h 15'

Priorearen etxearen leihatila.

Prezioa: 5 €

Erreserbak: T. 948 790 480 / 670 28 99 97  
auriaorreaga@gmail.com

13 OSTEGUNA

## LAZY DAISY BAND

Gares / 20:00 / Mena plaza

Ipar Amerikako sustraien musikaren soinuak aztertzen dituen talde bat da. Banda 2014an sortu zen, **McGregor & The Rustlers** izenarekin, eta country eta bluegrass musiken klasikoak interpretatzen hasi zen. 2015ean, bi single eta bi bideoklip grabatu zituzten: *Worn out shoes* eta *Workin'Man Blues*.

Gaur egun, country rock estilotik gehiago duen musika batera eboluzionatu dute, baina betiere blues, folk eta rockabilly estiloen pintzelkadak emanez; haiek Napar-Country deitzen diote soinu horri.

Gaur egun, **Lazy Daisy Band** kantu propioz osatutako lehen diskoaren aurreproduktzio-lanetan ari da.

KIDEAK:

**Axel McGregor:** ahotsa, banjoa eta gitarra /  
**Fafu Charger:** gitarra /  
**Al Butcher:** kontrabaxua / **Pi O'Lee:** bateria /  
**Mike Richman:** gitarra.



**Bisita gidatua herrira**

17:30 / 1h 15'

Gurutzearen elizako atea.

Prezioa: 1 €

Erreserbak:

T. 948 341 301 / turismo@puentelareina-gares.es





## 14 OSTIRALA MAFALDA

**Estella-Lizarra** / 21:00 / Foruen plaza

Borroka-musika talde bat da, 2010ean sortua. Turia aldeko zenbait herritako 10 musikaririk osatzen dute.

Ismael Serranoren kantu batetik sortu zen **Mafalda** izena – *Buenos Aires* (2001)-; hartan, esaldi batek *Mafalda juega a la guerra nuclear* dio, eta inspirazio-iturri izan genuen esaldi hura. Une hartan, ez genuen irudikatzen **Mafaldak** geroago izango zuen inplikazio politikoa, eta, urte horiek pasa eta gero, izen hori gure borrokaren parte izan da.

Gure estiloa fusio-nahasketa bat da (ska, reggae, funk eta hardcore estiloak), guk *Reggaecore* deitzen duguna.



**Bisita gidatua: Funtsezko Lizarra**

19:00 / 45'

Estella-Lizarra turismo-bulegoa.

Prezioa: 3,80 € heldua

Erreserbak:

T: 948 550 070 / [visitas@navark.es](mailto:visitas@navark.es)

## 15 LARUNBATA BROKHEM BROTHERS BRASS BAND

**Otsagabia** / 22:00 / Plaza

Brokhem Brothers Brass Band taldearen musika New Orleanseko Brass Bands talde garaikideen soinuan oinarritzen da. Funk eta Gospel estiloak dira taldearen interpretazio indartsuen osagaiak, Jazz modernoarekin batera. Inprobisazio kolektiboak berebiziko garrantzia du haietan. Makina bat agertokitan eta plazatan jo dute, baita zenbait jazz-jaialditan ere, hala nola Donostiako *Jazzaldian*, Getxon, *Jazz al margen* jaialdian (Zaragoza), *Haizetara kale-banden jaialdian* (Amorebieta) eta *Femukan*, baita edozein herritako festetan ere. Hain gustuko dituzten Brass Bands horien espirituarekin bat, *klase guztietako ekitaldietan jotzen dugu*, diote. Beste batzuetan, furgonetara igo, eta edozein lekutan hasten dira jotzen, abisatu gabe, edota edozein hiritako kaleetan...



**Bisita gidatua: Irati aireko ikuspegitik. Abodi**

10:00 / 3h

Abodiko eski-estazioa, NA-2011 PK7. Bidexka: 1h 30'.

(min 10 pax, max 35 pax) / Prezioa: dohainik

**Bisita gidatua Otsagabiara**

18:30 / 1h 30'

Otsagabiko turismo-bulegoa.

Prezioa: 1€ helduak, adingabeak dohainik (max 35 pax)

Erreserbak: T. 948 890 641 / [oit.ochagavia@navarra.es](mailto:oit.ochagavia@navarra.es)



## 20 OSTEGUNA **GREGARIO DE LUXE**

**Artajona / 20:00 / Quinta parkea**

Hamar urtetik gorako ibilbidea izanik, **Gregario de Luxe** 60. hamarkadako musika beltzaren espirituari eusten dio agertokiaren gainean. Energiaraz eta indarrez betetako zuzenekoak dute, eta, horretan, ikuskizunaren funtsezko parte bilakatzen dira ikusleak. Hamabi musikari agertokiaren gainean, Rhythm and Blues eta Soul estiloetako klasiko handiak berraztertzen dituztenak, Stax edo Motown disko-etxe mitikoen soinetara eramanez pop eta rock estiloetako kantu go-goangarriak (**Janis Joplin, The Beatles, Queen, AC-DC** eta beste asko). Bestalde, tema propioak ere tartekatzen dituzte, mundua eraldatu zuen usain gozoa oraindik ere gordetzen dutenak. Errezeta horrekin, Nafarroako bandak jaialdi garrantzitsuenetako batzuetan jotzea lortu du (sei aldiz *Heineken Jazzaldian*), eta arrakastak lortu herrialde guztiko areto mitikoetan. 2017an, hirugarren lan diskografikoa aurkeztu dute, *Life!* izenburukoa.



**Bisita Artajonako Zerkora eta elizako teilatura**

18:00 / 1h

Artajona - Zerkoko informazio-gunea. Prezioa: 4,5 €

Erreserbak: T. 670 481 965 / [info@reinodeartajona.com](mailto:info@reinodeartajona.com)

## 21 OSTIRALA **LOU TOPET**

**Erronkari / 20:00 / Pilotalekua**

Lou Topet banda, Harkaitz Cano idazlea eta euskal musikaren izen ospetsu batzuk elkartu dira **Pete Seeger** newyorktarraren espiritua berpizteko, proiektu paregabe eta ahaztezin batean.

Pete Seeger Ameriketako Estatu Batuetako folk-kantari ospetsuenetako bat izan zen. **Woody Guthrie**ekin batera, bere herrialdeko abangoardia musikal ezkertiarra ordezkatu zuen, eta betiere gogoratuko ditugu Lincoln Brigadari eskainitako bertso haiek, 1978an gurera egindako bisita hartan egin zituenak. Seegerrek eragin handia izan du euskal musikan, eta bere temak bertsionatu dituzte, besteak beste, **Benito Lertxundi**, **Fermin Muguruzak** eta **Garik**.

Proiektua Pete Seegerri egindako omenaldi-festa da, eta tema klasikoak adituko ditugu horretan, **Lou Topet** taldeak berritutakoak. Honako hauek dira taldeko kideak: **Oier Aranzabal**, **Rafa Rueda**, **Oihan Larrañaga** eta **Ander Zulaika**, oraingo honetan **Joserra Semperena** eta **Joseba Irazokirekin** batera.

“Bertsioak egiteko tenorean, ahalik eta geurenak egiten saiatzen gara –esaten digu Lou Topet taldeko fundatzaile Aranzabalek-. Loraldiaren enkargua aukera baten gisara hartu genuen, eta gure aurreko diskoaren luzapen baten antzera –*Abesti bat gutxiago*



diskoaz ari da-. Gustura aritu ginen, Seegerren zale porrokatuak baikara”, zeina “herriarekin eta herriarentzat kantatzen baitzuen modu didaktiko batez”. Kontzertu honetarako prestatutako erreperitorioan dozena bat kantu daude, Rock eta Country musikara bideratutako soinu batekin.



### Bisita gidatua Uztarrozeko Gaztaren Museora

17:00 / 1h

Uztarrozeko Ekia gaztandegia.

Prezioa: 3 €

Erreserbak:

T. 948 475 256 / oit.roncal@navarra.es

Izen-emateak aurreko egunera arte.

Taldea sortu eta handik hilabete gutxira, bandak Burgoseko Unibertsitatearen zuzeneko musika-lehiaketa (UBULIVE) irabazi zuen; lehen EP bat grabatzea erabaki zuten, eta, gaur egun, 2.000 kopia banatu dira. Urtebete igaro gabe, banda berriz ere estudioan sartu, eta bigarren EP bat grabatu zuen; 1.000 kopia banatu dira. Gaur egun, berrargitalpen batean ari dira lanean, bi EPak batuz. Denbora horretan zehar, banda 100dik gora kontzertu egin ditu panorama nazional guztian barna, eta zenbait jaialditan hartu du parte, besteak beste *Sonorama Riberan*. Taldearen estiloa askotarikoa da, musika-genero sorta zabala hartzen baitu; rock edo pop alternatiboaren barnean sailkatu genezake, baina eragin askorekin: Folk, Country, Bluegrass, Blues...

22 LARUNBATA

## CON X THE BANJO

Valtierra / 21:30 / Esperanza parkea

2014aren bukaeran sortu zuten taldea Tudelako eta Arguedasko hiru lagunek, kantuak egiteko elkartzen hasi baitziren: Andoni Zubiria Martinez, bateria (29 urte), Luis Pérez-Nievas Pérez, baxua eta kora (22 urte), eta Alejo Huerta Apastegui (24 urte), ahotsa eta gitarra.



### Bisita gidatua gune trogloditara eta erratzen fabrikara. Aperitiboa.

19:00 / 1h

Valtierrako landa-leizeak. Palomeres kalea 46.

Prezioa: 5,50 € helduak; 3,50 € haurrak

Erreserbak:

T. 661 846 757 / info@bardeneras.com



27 OSTEGUNA

## ISEO & DODOSOUND

Marcilla / 20:00 / Gaztelua

Iseo&Dodosound musika-proiektua elkargune gisa sortu da, non bi artista horien talentu musikalek bat egiten baitute. Soinuak reggae eta dub estiloen artean mugitzen dira, musika digitalaren lehen garaiko aztarnak eta trip hop estiloko eragin handiak dituztela; proposamen originala da, aberatsa soinueta eta xaloe bere izaeran. Ofizialki, 2015ean aurkeztu zen taldea, *Cat Platoon* albumarekin, eta sekulako harrera ona izan zuten entzuleen eta kritikaren aldetik; albumak hamar kantu ditu, eta gauza da entzulea lanaren sortzaileen gogoen paisaietan eta imajinarioan barrena eramateko.

Lan horri esker, ia Espainia osotik jotzeko aukera izan dute, baita Frantzia ere; haien proposamena mota guztietako agertokietara eramanda, ikus-entzunezko aberats eta bariatu batean islatu dute bide hori. Estilo orotarazlea, zuzeneko indartsua eta aldi berean suabea duena; proiektu horretaz gozatzeko aukera dutenak ez dira ez hotz ez bero geldituko.

28 OSTIRALA

## SOUL MEETING

Lekunberri / 20:00 / Plaza

2015eko udaberrian sortu zen. Hona hemen kideak: **Jaime Alvarellos**, ahotsa eta gitarra; **Ana Iso**, bateria; **Javier Larrañeta**, baxua; **Oskar Lacunza**, saxoa; eta **Javier Ramos**, tronpeta. Zangozako Musika Eskola da taldearen elkargunea, horri lotuta baitaude bost musikariak. Taldearen estiloa 60 eta 70eko urteetako soularen inguruan dabil. **Wilson Pickett**, **Otis Redding**, **Etta James**, **Chuck Berry** edo **Ray Charles** dira haien eragin handienetakoak.

Errepertorioa bertsio mitikoz betea da, eta hurbila eta parte-hartzailea da ikuslearentzat **Soul Meeting** taldeak eskaintzen duen ikuskizuna. Ibilbide laburra egin badu ere, taldea bere lekua hartzen ari da Nafarroako panorama musikalean; Iruñeko Udalak antolatutako *Versionando* zikloan hartu du parte, esate baterako.



Bisita Mendukilloko leizera, Astitzen

17:00 / 1h 30'

Mendukilloko leizeko harrera-lekua.

Prezioa: 5 €

Erreserbak:

T. 948 396 095 / 608 623 604

mendukilo@mendukilo.com





29 LARUNBATA

## ALOS QUARTET

Los Arcos / 21:00 / Plaza

Alos Quartet 1999an sortu zen. Ibilbide artistiko luzea duten musikariz osatuta dago, eta haien erreperorioak zenbait lurralde hartzen ditu, folk garaikidearen barnean. Hamabost urteko bide horretan, laukoteak hainbat emanaldi eta grabazio metatu ditu. Kolaborazio garrantzitsuenen artean, nabarmentzekoa da **Dulce Pontes** kantari portugaldarrari laguntzen egindako birak, Espainiako eta Portugaleko agertoki garrantzitsuetan jo izan baitzuen.

Honako hauekin ere aritu da Alos Quartet, bai zuzenean bai grabazioetan: **Kepa Junkera, Oskorri, Carlos Núñez, Oreka TX, Ken Zazpi, Los Piratas, El Hombre Burbuja, Bide Ertzean, Angel Unzu** eta beste asko gehiago.

Lau disko plazaratu ditu bakarlari gisa: *Alos Quartet* (2004), *Harizko Txistua* (2007), *10 Tanta* (2010) eta *Garden*, azkena, 2015ean, **Oreka TX** eta **Eñaut Elorrietarekin**.

# 3 OSTEKUNA

## JEREZ TEXAS

Viana / 21:00 / San Pedroko hondakinak

**Jerez Texas**, beste ezer baino lehen, musikari birtuosoz osatutako hirukotea da: **Ricardo Esteve**, gitarra flamenkoa; **Matthieu Saglio**, biolontxeloa; eta **Jesús Gimeno**, bateria. Halaber, zenbait unibertsoaren arteko elkargunea da (flamenkoa, jazz, klasikoa, munduko musikak...). Bestelako ezaugarriak ere baditu **Jerez Texas** taldearen musikak: melodia gogoraerazak, energia kutsagarria eta moldaketa finak. Baina, ezaugarri horietatik harago, hitz bakar bat nahikoa da **Jerez Texasen** unibertsoa definitzeko: plazera.

Plazer partekatua, duela 15 urte hasitako ibilbidean urraketarik gabeko konplizitatean aritutako musikarien artean. Plazer hori eskuzabaltasunez partekatzen dute entzuleekin; izan ere, ametsetara zabalik dagoen ate bat aurkitzen dute han,

eta halaxe erakutsi du munduan zehar taldeak izan duen harrera gogotsuak, hain zuzen, 25 herrialdetan egindako 500 kontzertu baino gehiagotan.

Bosgarren disko honetarako (hona aurreko lauak: *Saó*, 2005 - *Patchwork*, 2007 - *Sun*, 2010 - *Viento eta Marea*, 2013), hirukote fundatzailearen jatorrirra itzuli da **Jerez Texas**, Saguntoko (Valentziatik gertu) antzoki erromatar ikusgarrian egindako kontzertua gogoangarria grabatuta. Antzinako hondakinen artean, apaingarririk gabea baina zinez epela den formula batean, hirukoteak bere musikaren funtsa eskaini du. Musikaria izan edo musikazalea izan, ziur emozioak eta plazerak harrapatuko zaituztela. Horra hor arrazoi on bat **Jerez Texasen** unibertsoan murgiltzeko.



### Bisita gidatua: Ezagutu Viana

18:00 h / 1h

Vianako turismo-bulegoa.

Prezioa: dohainik. *Aurrez eman behar da izena,*

*Vianan jan edo lo egiten duten bisitarientzat.*

Erreserbak: T. 948 44 63 02 /

[turismoycultura@viana.es](mailto:turismoycultura@viana.es)





## 4 OSTIRALA DANTZAZ

Elizondo / 20:30 / Plaza

Mikel Laboaren kantuak abiapuntu hartuta, Dantzaz taldeak koreografia garaikide eder-ederra sortu zuen itsas bazterrean, *Lekeitioko Kale Antzerki Nazioarteko Jaialdiaren* laguntzaz. Mikel Laboaren ahots zilarkara entzuteko aukera izanen dugu, eta Dantzaz taldeko dantzarien interpretazioak Donostiako kantariaren lurraldera eramanen gaitu. Laboaren lan berritzaileena, Elizondoko paisaian.

Dantzaz taldearen ekoizpena, Mikel Laboaren musika, Josu Mujikaren koreografia eta Iñaki Salvadorren laguntza musikala. *Txoriak* Mikel Laboaren unibertsoan murgiltzen da: askatasuna, osasun mentala, besteekiko harremanak..., betiere Iñaki Salvadorrek bildutako soinu-banda erabilia, hau da, Laboaren kantu ezagunenak erabilia, entzuleak hunkitu eta liluratzeko. Obra horrek edertasunera eta artera hurbilduko gaitu.



### Bisita gidatua "Zaindari ikusezina" Elizondo eta hilerria

17:00 h / 2h 30'

Foruen plaza, udaletxearen parean.

Prezioa: 10 €

*Elizondo eta hilerria barne.*

Erreserbak:

T. 670 336 232 / [visita-elguardianinvisible@hotmail.com](mailto:visita-elguardianinvisible@hotmail.com)

# 5 LARUNBATA FIX THIS

Altsasu-Alsasua / 21:00 / Dantzaleku

**Fix This** banda Madrilekoa da, eta 2008ko maiatzean sortu zen. Eragin asko dituzte, hala nola Jazza, Bluesa, Swinga, Nueva Orleanseko musika tradizionala; beste estilo batzuen erreferentziak ere aurkitzen dira: Flamenkoa, musika arabiarra, Beat frantziarra, Afrobeata, Dark Cabareta, eta abar.

Kontzertu bakoitzean, ahalik eta ikuskizun berriena eskaintzen ahalegintzen dira; horretarako, errepertorioaz gainera, bertsioak ere aldatzen dituzte agertoki bakoitzera hobekien moldatzen den ikuskizuna sortzeko. 2009an, bi sari irabazi

zituzten: San Adrián (Nafarroa) eta Porcuna (Jaén). Bi sari horietan irabazitako dirua lehen estudio-diskoa grabatzeko erabili zuten. 2012an, UFI sarietarako (musika independentearen sariak) izendatu zituzten Radio 3ko banda onen gisa.

KIDEAK:

**Nacho Cherokee:** gitarra / **Serch:** bateria  
**Diego Miranda:** baxua / **Gabriel Casanova:** teklatuak / **Loralí:** ahotsa / **Jhavian:** tronboia / **David Carrasco:** saxo tenorra / **Toni García:** tronpeta / **Ele Iturrieta:** abesbatzak



## Paseoa zaldiz Errotain Zalditegiarekin

11:00etatik 19:00etara / Ordu bat edo bi aukeran Errotain. Urdiaingo errota-etxea.

Prezioa: 20 € ordubate; 36 € 2 ordu

Erreserbak:

T. 687 424 839 / 626 749 149 / errotain@gmail.com



*Blim Blim*



5 LARUNBATA

AHOTS BAXUEN

## SANTA MARIA LA REAL ABESBATZA

**Irantzuko monasterioa** / 12:00 / Eliza

Santa María la Real Eskolaniako garai bateko ikasleek osatzen dute gehienbat Iruñeko **Ahots Baxuen Santa María la Real Abesbatza**; eskolania 1950ean sortu zen tiple kantarien abesbatza sortzeko, Iruñeko katedraleko eliza santuko elizkizuneren alderdi musikalaz arduratze aldera. Ahotsen kalitateari eta **Javier Redín Mainz** zuzendariaren lanari esker, behin baino gehiago deitu zioten eskolaniari Europako zenbait lekutan kontzertuak eman zitzaizkien. Gizartean izandako aldaketak zirela eta, proiektua ez zen sendotu, eta hirurogeita hamarrek hamarkadaren erdialdean bukatu zen. Zorionez, sorreraren berrogeita hamargarren urteurrenaren karira, garai bateko hainbat ikasleren gogo berpiztu, eta, 2000an, **Ahots Baxuen Santa Maria**

la Real abesbatza sortu zen. Askotan eskatzen da talde horren presentzia kontzertu eta elizkizun erlijiosoetarako, bai eta Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak edo beste erakunde batzuek babestutako emanaldietarako ere. Sortu zenetik, ospe handiko **Pedro María Ardáiz** organo-jotzailea eta zuzendari musikala aritzen da zuzendari **Ahots Baxuen Santa Maria la Real Abesbatza**an.



**Bisita monasteriora**

12:00 / 1h

Informazio-gunea.

Prezioa: 3 €

Erreserbak: T. 948 520 012

## 10 OSTEGUNA FRANK

Corella / 21:30 / Foruen plaza

**Frank** Donostian sortu zen, 2013ko ekainean. Abuztuan entsegu-lokalean demo bat grabatu eta gero, urrian hasi ziren kontzertuak egiten. Eta urte hartako azaroan sartu ziren grabatzera lehen EPA. Facebook eta Bandcampeko orrietan argitaratutako etxeko demo hari esker, *Mondosonoro* aldizkariak urteko errebelazio-bandetako baten gisara aukeratu, eta *Festa Demoskopikoetan* jotzera gonbidatu zituen 2014ko otsailean. 2014ko martxoan, *My Wild Kingdom* lehen EPA argitaratu zuten, zeinak folk rock amerikar intentsuaren eta oso emozionalaren zantzu sakonak baitzituen; hark kritika bikainak jaso zituen zenbait komunikabide espezializatutan, hala nola *Ruta 66*, *Mondosonoro*, *Kulturaldia*, *Dod Magazine*, eta abarretan.

2016ko otsailean, *The Mud and The Thirst* lehen LPA argitaratu zuten, aurreko lana baino ilunagoa eta gordinagoa; goraipamenezko kritikak jaso zituen *Mondosonoro*, *Ruta 66*, *Euskadi Gaztea*, *Diario Vasco* eta *Makma* eta *Río Rojo* magazinaren aldetik, besteak beste. Era berean, urteko disko onenetako bat izan zen zenbait zerrenda nazionaletan. Album hori aurkezteko egindako biran, hasierako talde gisa aritu da, bi aldiz, **Danny And The Champions Of The World** talde britainiarrarekin, eta *El Último Vals* eta *Actual Festival 2017* jaialdian jo dute.



**Bisita gidatua Arrese museora  
eta multzo historikora**

19:00 / 1h

Arrese museoa. Prezioa: Dohainik

Erreserbak:

948 780 331 / [casacultura@corella.es](mailto:casacultura@corella.es)





*Xabi Aburruzaga*  
... K E L T I K ...



PODRÁN DISFRUTAR DE  
CANCIONES INOLVIDABLES COMO:  
**O SOLE MÍO, EL CORRIDO DE  
JUAN CHARRASQUEADO,  
LA VALENTINA,  
YO SOY MEXICANO....  
Y COMO NO... MÉXICO  
LINDO Y QUERIDO!!**

## 11 OSTIRALA XABI ABURRUZAGA

**Izaba / 20:30 / Anfiteatroa**

Portugaleten sortu zen, 1978an. Trikitilaria eta konpositorea da, eta bere laugarren lan diskografikoa aurkezten digu: *Keltik*. Sormenaren itsasoetatik nabigatu eta gero, Aburruzaga heldutasun musikalera iritsi zen *Geure* diskoarekin, tradizioaren aldeko pasioa *Bizkaiko Trikitixa* lanean eguneratuta eta *Denboraren Naufrago* lanera iritsita. Etengabeko bilaketan dabilen sortzailea dugu, eta soinu diatonikoaren langile nekazina. Horren bila dabil bere lanetan, eta oso gogokoa izanen du kalejira bat entzun nahi duenak. Ez du mugarik. Izan ere, ez ditu atsegin mugak. Horregatik, lorpen bat proposatu dio bere buruari, mugez haragokoa, lan berri honetan. Ez da berria musika zeltaren aldeko bere grina. Aurreko lanetan ere bazegoen espiritu zelta bat, eta ez da kasualitatea *Ortigueirako* jaialdiaren zenbait ediziotan parte hartu izana, ezta *Runas* promesa gazteentzako lehiaketa irabazi izana ere, 2014. urtean.



**Bisita gidatua Uztarrozeko Gaztaren Museora**

17:00 / 1h

Uztarrozeko Ekia gaztandegia.

Prezioa: 3 €

Erreserbak:

T. 948 475 256 / oit.roncal@navarra.es

Izen-emateak aurreko egunera arte.

## 12 LARUNBATA JORGE NEGRETE UN MUSICAL LINDO Y QUERIDO

**Xabier / 12:00 / Auditorioa**

**Jorge Negrete**, un musical lindo y querido" ikuskizunak kantari mexikar handiaren bizitza eta kantu enblematikoenak ekarri nahi ditu gogora. Lolak, haren zale nekazina baita, omenaldi ikusgarri bat antolatu nahi dio agertokiaren gainean bere interpretatzaile gogokoenari. Horixe da obraren argumentu-haria, eta, hartan, musika eta elkarriketak txandakatzen dira klima oroitarazle, dibertigarri eta festa-giroko batean. **Juanjo Bordés**, **Fabiola Salvatierra** eta **Pedro Alonso** aktoreek, **Zacatecas Mariachiak**, **Calaveras Hirukoteak** eta **Sandra Gallardo** dantza-estudioko bost dantzarik ekarriko dute agertokira **Jorge Negrete**, baita haren maitasunak, ospea eta musika paregabea ere; aldi berean, ustekabeko liskar batzuk sortuko dira ikuskizuna muntatu ahala. Hori guztia ez da oztopo izanen, eta, azkenean, Lolak lortuko du, modu harrigarri eta gogoangarri batez, omenaldi egitea Charro hilezkorrari.



**Bisita Xabierko museo-gaztelura**

11:00 / 45'

Gazteluko harrera-lekua.

Prezioa: 3,25 € helduak; 1,75 € haurrek

Erreserbak:

T. 948 884 024 / castillodejavier@jesuitas.es



## 17 OSTEGUNA LURPEKARIAK

**Donamaria / 20:00 / Jauregia Dorretxea**

Free-jazz eta Sunpriñu delakoak? Artzain-kantuak, bat-batean sortuak?

Euskal musika tradizionalaren elementu-sintesian eta bere pentsamenduan oinarritutako egiturak lantzen ditu hirukote bikoitz horrek, testura aberatsak eta soinu-espazioak sortuta; bat-bateotasun kolektiboak musikari zabaltzen dio bidea, eta hark zenbait norabidetan egiten du aurrera... bat-batean sortutako musika, sustrai sakona duena.

**KIDEAK:**

**Ion Celestino:** tronpeta / **Nerea Erbiti:** ahotsa / **Ander García:** kontrabaxua / **Javier Callén:** kontrabaxua / **Daniel Lizarraga:** bateria / **Israel Tubilleja:** bateria



**Bisita Jauregia Dorretxera**

19:00 / 50'

Donamariako Dorrea. Prezioa: 4 €

Erreserbak:

T. 652 162 103 / jauregiarte@gmail.com

## 18 OSTIRALA SULTANS OF WING

DIRE STRAITS TRIBUTOA

**Zangoza / 23:00 / Arcadas plaza**

Sei musikari profesionalak osatzen dute **Sultans of swing** banda, eta oso asmo garbia dute: kontzertuak jendaurrean eskaintzea **Dire Straits** bandaren eta **Mark Knopfler** egilearen temen bertsioek osatutako errepertorioa joaz.

**Dire Straits** taldearen tributo-banda bat da, eta, hari esker, jatorrizko bandaren jarraitzaileek beren idoloen kantuak entzun ditzakete zuzenean, ez baitu jadanik jotzen taldeak; hortaz, jatorrizko bandaren kontzertuetan izandako soinuaz eta epeltasunaz gozatzeko aukera paregabea izanen dute, munduko rock-talde onenetakoa zenaren jatorrizko soinua bertatik bertara entzunda.

*So far away, Expresso love, Sultans of swing, Money for nothing, Walk of life, Romeo and Juliet, Local hero (Going Home), Tunnel of love, The long highway, Solid rock, Brothers in arms,* eta abar.



**Bisita gidatua Sadako upeltegira**

12:00 / 1h

Sadako upeltegia.

Prezioa: 5 €

Erreserbak:

T. 620 110 581 / info@sanguesaturismo.com

**Bisita gidatua "argia eta soinua"**  
**Zangozako Andre Maria elizara**

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era / 15'

Andre Maria eliza. Bisita 20' minututik behin.

Prezioa: 2,30 €

Erreserbak: T. 620 110 581

info@sanguesaturismo.com





19 LARUNBATA  
**PIAZZOLLA**  
**180 GRADOS**  
 JASO-ESCRICH-GIMENEZ

**Lizaso / 12:30 / Orgiko oihana**

*Piazzolla 180 gradu*; musika-ikuskizun horretan, Argentinako musika modernoaren aita eta figura handia omendu nahi dugu, **Astor Piazzolla**, haren heriotzaren 25. urtemugan. Horretarako, haren lanik ezagunenetako batzuk interpretatuko ditugu, fintasun handiz aukeratu eta bildu eta gero; izan ere, garai hartan, tema haiek irauli egin zuten ordura arteko tangoaren mundua, eta musika klasikoaren, tangoaren eta jazz-eragineen arteko fusio perfektua sartu zuten hartan. Lan honi esker, batuko dira, egungo ikuspegi berritzaile eta propio batetik, **A. Piazzolla**ren musikaren indarra eta sentiberatasuna zein bat-bateko musikaren eta jazz estiloaren lengoaia, kalitate, sormen eta originaltasun handiko proiektu batean. Xumetasuna eta garbitasuna dira nagusi batze-lan horretan, eta berez zirrargarriak diren temen funts, indar eta pasiora eramaten dira.



**KIDEAK:**

**Javier López Jaso:** akordeoia /  
**Marcelo Escrich:** kontrabaxua /  
**Luis Gimenez:** gitarra



**Bisita gidatua Orgiko oihanera**

11:00 / 1h  
 Orgiko aparkalekuko etxola.  
 Prezioa: 3 €  
 Erreserbak:  
 T. 620 955 454 / [garrapo@garrapo.com](mailto:garrapo@garrapo.com)

## 24 OSTEKUNA OROITZAPEN HUTSAK

OBERENA DANTZA TALDEA

Agoitz / 21:00 / Kultura Etxea

Oroitzapenak daude ikuskizun honen muinean. Norbanakoen oroitzapenak, eta oroitzapen kolektiboak. Oroitzapen orokorrak, eta oroitzapen zehatzak. Izan ere, oroitzapenik gabe, ez da bizirik. Bizitakoa gorde egiten da pertsonen buruetan, eta askotan, gorde egiten da kolektiboen historian. Ikuskizun honetan **Jose Angel Dorremotz** ttunttunero

Almandoztarraren memoria gordetzeko ahalegintxo bat egingen dute dantzari eta musikariek. Nafarroako tradizioetan ezinbesteko pertsona horri aitortza egin nahi diote taularatuko diren doinu eta dantzek. Ikusgarriaren hasieran bi lagun agertuko dira. Medikua bat, alzheimerria duen emakume baten semea bestea. Oroitzapenez mintzatuko dira, baita galtzen diren oroitzapenen inguruan ere.



**Bisita gidatua, argi eta soinu ikuskizuna**  
**Agoitzko S. Migel elizan**

17:30tik 19:30era / 30'

Agoitzko S. Migel eliza.

Prezioa: 1 €. Gutxienez 10 € bisita

Erreserbak: T. 637 44 81 07 / [prepirineo@cederna.es](mailto:prepirineo@cederna.es)





## 25 OSTIRALA

# CELTIC ROCK & REELS

**Lodosa / 22:00 / Espainia plaza - Pasealekua**

*An Taisteal* (Bidaia) lanaren arrakastari jarraikiz, musika eta dantza irlandar baten bidaldi batean abiatu dira berriz **Los Stompers** eta **Nuala**. *Riverdance* eta *Lord of the Dance* ikuskizunen antzeko iturburuetatik sortu da **Celtic Rock & Reels** ere; izan ere, batetik, klake irlandarraren animazio arina eta zapata bigunaren dantza, eta, bestetik, giga eta reel tradizionalen –egungo erritmoek eraldatuta– akonpainamendu sutua nahasten ditu.

Odisea zelta horretan, kultura musikal irlandarraren hainbat elementu jorratuko dira, hala nola landa giroko Irlandaren dantzak eta Dublingo tabernetako klakea, edo errepertorio errebeldearen kalapitatik *Sean Nós* kantuaeren edertasun xarmagarria.

Irlandako hizkuntzak (*Gaeilge*) funtsezko garrantzia izanen du, **Los Stompers** taldearen zenbait temarekin batera.

**Celtic Rock & Reels** taldeak Irlandara eramanen gaitu tripulazio maitagarri bati esker: **Nualaren** koreografia liluragarria eta **Los Stompersen** *Craic* xaloa.

*Sean Nós*- (Antzinako Estiloa) halako *Cante Jondo* irlandar bat, akonpainamendurik gabe eta apaingua.

*Craic*- Animazioa, dibertsioa, algara.



**Bisita eta dastatzea Lodosako Perón kontserba-industrian**

11:00 / 1h

Perón kontserba-industria.

Prezioa: dohainik. *Aurrez eman behar da izena ezinbestez.*

Erreserbak:

T. 948 69 45 02 / c.peron@terra.com



## 26 LARUNBATA PRIMITIVE GROOVES

**Azagra / 20:00 / Foruen plaza**

Antzina-antzinako erritmo, ahots eta dantzak hartu dituzte inspirazio-iturri **Primitive Grooves** taldearen prozesu sortzailerako; banda horrek lengoaia irekia du, eta tradizioa eta abangoardia nahasten ditu groove eta erritmoaren eduki handiko oinarri baten gainean. Horrela, jatorrizko temak konposatzen dituzte, eta, sustraietatik abiatuta, melodia berriak egiten, sormenari eta batekotasanari espazioak zabalduta.

Hiru musikari hauek aritzen dira **Primitive Grooves** taldean: César Díez, Jorge Arribas eta Adal Pumarabín; ezagutza musikal handiko musikariak dira, Celtas Cortos, Rao Trío, La Musgaña, El Naán, Fetén Fetén eta Odradec bandetan aritu direnak, besteak beste. Aberastasun eta aniztasun musikal horrek guztiak Jazz, Rock eta Folk estiloen eraginak eman dizkiote **Primitive Grooves** taldeari,

eta, horri esker, berezko soinu bat sortzen dute, nortasun bereziko eta muga estetikorik gabeko erritmoen eta estiloen arragoa. Zuzenekoan, gure musika tradizionalaren melodiak entzuteko aukera izanen dugu, hala nola jota, seguidilla edo bulería, baina erritmo afrikar eta amerikarrekin batera, adibidez, *dawr hindi* arabiarra, *sertao brasildarra* edo New Orleanseko *second line* delakoa.



### **Bisita gidatua eta ardo-dastatzea Finca Manzanos Upeltegian**

12:00 eta 18:30 / 1h 30'

Finca Manzanos, NA 134 errepidea, 49. km. Azagra.

Prezioa: 7 €

Erreserbak:

T. 948 692 042

[culturaydeporte@azagra.es](mailto:culturaydeporte@azagra.es) / [info@manzanos.com](mailto:info@manzanos.com)

## 26 LARUNBATA

# ARANGUREN IBARREKO ABESBATZA

**La Olivako monasterioa / 19:00 / Eliza**

1993an fundatua, **Arangurengo Ibarreko Abesbatza** koru-kantuan aritzen da; Mutiloan du helbidea, abesbatzaren izen bereko udalerrian. 2001eko irailetik aurrera, **Gonzalo Esparza Imas** du zuzendari.

Urtean eskaintzen ditugun emandien programan lan erlijiosoak eta profanoak daude, garai guztietakoak, Errenazimendutik egundaino; lan horrekin, Nafarroako abesbatza-tradizioa zabaltzen laguntzen dugu, eta garai bateko eta egungo maisu polifonisten lana omentzen.

Abesbatzak MECNA zigilua jaso du aitorten gisa, eta, horri esker, enpresek eta partikularrek dohaintzak egin ditzakete kontzertuen urteko programa garatzeari begira.



**Bisita gidatua: Historia, arte eta espiritualtasuna monasterioan**

17:00 / 45'

Monasterioko atezaindegia.

Prezioa: 2 €

Erreserbak:

T. 948 725 006 / biblioteca@monasteriodelaoliva.org





## 31 OTEGUNA ON PROJECT & AMAIA ELIZARAN

**Erriberri** / 20:00 / Karlos IIIa Prestuaren plaza

*Empty* proiektuan, musika eta dantza batu egiten dira dantza garaikidearen pieza bat egiteko, kalean edo bestelako eremu konbentzionaletan egiteko. Xabier Zeberioi eta Pello Ramírezek **Amaia Elizaran** dantzariarekin batera egindako lana da, eta lengoia koreografiko-musikala bilatzen du, zenbait inprobisaziotatik sortzen dena. Alde batetik, sormen-horizonte berriak esperimentatu eta bilatu beharra, eta, bestetik, proposamen instrumental paregabea planteatzea, oso originala eta ikusgarria, bai entzuteko bai ikusteko (Nyckelharpa eta akordeoi kromatikoa izanik instrumentu nagusiak); hartan, Amaiaen eskutik, inprobisazioa batzen da. Errepertorio atsegina eta bariatua da, eta tartean badira talde berriarentzat propio konposatutako jatorrizko lanak eta zenbait tema folklorikoren bertsioak, adibidez Suediakoak, Euskal Herrikoak,...



### **Erriberriko Sekretuak**

17:00 / 1h 20'

Erriberriko turismo bulegoa. Ardo Museoa.

Talde kopurua: 20 lagun.

Prezioa: 7,50 €

Erreserbak:

Guiarte. T. 948 741 273

Sarrerak *online* salgai [www.guiartenavarra.com](http://www.guiartenavarra.com)

Leihatilan jardueraren egun berean (gelditzen badira).

# 1 OSTIRALA TENPORA

Lesaka / 20:00 / Plaza

Hasiera-hasieratik, 2013tik, **Tenpora** taldeak bere nortasun propioa sortu du, eta musika eta literatura batzen dituzten soinuak ere bai. **Carlos Linazasoro** eta **Harkaitz Cano** ari dira letren hornitzaile, eta horiekin osatzen du bere musika taldeak. 2015etik aurrera, taldea bere lehen diskoa aurkezteko lanetan ari da: *Mundu Berria*.

Gaur egun, banda bigarren diskoa prestatzen ari da, datorren udazkenean argitaratzekoa baita.

## MUSIKARIAK:

**Hasier Oleaga:** bateria / **Itsaso Etxebeste:** baxua / **Juantxo Zeberio Etxetxia:** teklatuak / **Beñat Barandiaran:** gitarra / **Elene Arandia:** ahotsa



## Bisita gidatua Lesakako Forjaren zentrora

12:00 eta 17:00 / 1h

Lesakako turismo-bulegoa, udaletxearen ondoren.

Prezioa: 2 €

Erreserbak:

T. 948 638 007 / [kultura@lesaka.net](mailto:kultura@lesaka.net)

# 2 LARUNBATA ELKHOS AHOTS TALDEA

Leireko monasterioa / 19:45 / Eliza

Elkhos ahots-taldea 2004an sortu zen, haren fundatzaile eta zuzendari **Carlos Gorricho Otermin** jaunaren eta musikari lotutako hainbaten ekimenez, helburu bakarra izanik: abesbatza-musika interpretatzea.



Gaur egun, 22 pertsonak osatzen dute, eta bloke sendoa da, eskarmentu handikoa; pasioz abesten duen abesbatza da, hunkigarria, eklektikoa, baina, batez ere, musikala. Abesbatzak oso programa bariatua du, eta obra profanoak zein sakratuak interpretatzen ditu, zenbait garai eta estilotakoak; gainera, euskal folkloreko obrak sortzeko eta harmonizatzeko lana ere egiten du. Horrela, lan-bide berriak ematea lortzen du, bai abesbatzarentzat, bai, oro har, panorama musikarentzat. Zenbait autonomia erkidegotako ziklo eta kontzertuetan parte hartu du; halaber, birak egin ditu Belgikan eta Herbehereetan, eta kritika bikainak jaso ditu. Lehen saria jaso zuen **Antonio José de Burgos XIII. Abesbatza Lehiaketa Nazionalean** (2014). 2014ko abenduan, **Villa de Rojas Sehaska-** eta **Gabon-kanten XXXVI. Lehiaketa Nazionalean** parte hartu zuen, eta lehen saria lortu. 2016an, mundu guztiko abesbatzen artean hautatu zuten, eta kritika arrakastatsuak lortu zituen **Torre viejako Polifonia** eta **Habaneren Nazioarteko Lehiaketan**. 2017an, **Santiago de Cuba** eta **Habanako Nazioarteko Abesbatza Jaialdira** gonbidatu dute. Karibeko ospetsuenak dira. Fundatu zenetik, Nafarroako Abesbatzen Elkarteak idea da **Elkhos** ahots-taldea.



## Bisita gidatua eta fraide-pintxoak dastatzea

18:00 / 45' bisita, 30' dastatzea

Monasterioko harrera-zentroa.

Prezioa: 3,50 € bisita; 2,50 € dastatzea.

Erreserbak:

T. 948 884 150 / [visitas@monasteriodeleyre.com](mailto:visitas@monasteriodeleyre.com)



7 OSTEGUNA

## MIKEL GAZTELURRUTIA TRÍO

**Mendigorria / 20:00 / Gizarte Etxea**

*Walk* diskoa grabatu berri du, *The Road Less Traveled* liburua –Scott Peck idazlearena– inspirazio-iturri hartuta. *Walk* lanak gogora ekarri nahi ditu gure bizi-ibilbidea eta gure erabakiak zuzentzen dituzten mugimendua, pultsio erritmikoa eta inprobisazioa.

Diskoak hiru oinarritzko zutabe ditu: jatorrizko konposizioak, musika afrokubatarraren erritmoak eta hirukoteak temen moldaketan gainean egindako lan sendoa; izan ere, izaera erritmiko handia ematen diote grabazioari. *Walk* lanean, afro, guaracha edo mambo erritmoak aurkituko ditugu, baita reggae, bossa-nova eta funk erritmoak ere.

**KIDEAK:**

**Mikel Gaztelurrutia:** pianoa, konposaketa eta moldaketak / **Toño de Miguel:** kontrabaxua / **Michael Olivera:** bateria eta congak

8 OSTIRALA

## IÑAKI ASKUNZE & BOB SANDS BIG BAND

**F. GARCÍA LORCAREN ALDEKO  
OMENALDI KONTZERTUA**

**Tudela / 20:30 / Alfonso el Batallador plaza**

*Bob Sands Big Band* banda jazz-panorama nazionalako talde zirrargarrienetako bat da. **Bob Sands** saxofonista newyorktar beteranoak zuzenduta, kalitate bikaina lortu du, eta, *Time* aldizkariaren ustez, *garbia eta modernoa* den soinu bat ere bai.

Madrilgo musikari onenek osatuta dago, hala nola **Bobby Martínezek, Israel Sandovalek, Norman Hoguek, Santi Cañadak** eta **Daniel García**ak, besteak beste. Jazzaren historiako konpositore handien errepertorio zabala interpretatzen du, adibidez **Count Basie, Duke Ellington, Thad Jones, Buddy Rich, Maynard Ferguson, Bob Brookmeyer, Bob Mintzer** eta **Slide Hamptonena**, baita **Chris Kase** eta **Kurt Weissen** tema originalak ere, besteak beste.

Kontzertu honetan, **Iñaki Askunzek** zuzenduko du, eta jazz flamenkoaren temen moldaketak interpretatuko ditu, hala nola **Paco de Lucía, Chano Domínguez** eta **Chick Corea** egileen lanak; jatorrizko lanak



ere joko dituzte, den-denak Iñaki Askunzek eginak **Federico García Lorca**ren poesietako testuen gainean.



**Ibilbidea Tudelan, bisita gidatua**

18:00 / 1h 30'

Monreal dorrea. Prezioa: 3 €

Erreserbak:

T. 948 417 100 / turismo@tudela.es

9 LARUNBATA

**O' CAROLAN**

**Ribaforada / 22:30 / Caballeros Templarios  
kalea (Barranco)**

O' Carolan taldeak ospe handiko Tourlough O' Carolan konpositore irlandarraren izenetik hartzen du berea; izan ere, hark maisutasunez funditu zituen bere garaiko musika barrokoa eta Irlandako -haren sorterria- musika tradizionala. Talde aragoarrak 25 urte daramatza agertokien

gainean, eta konpositore irlandarrari eta *musika atlantikoei* zuzendutako hiru lan diskografikoren ondoren (*Alrededor de una vela*, *La llave de los sueños*, *El reloj secreto*), Aragoiko musika tradizionalaren lurraldean sartu da, ganbera-izaera bat emanda; horrela, *Nota de Paso* lana grabatu du, baita zuzeneko DVD bat ere, 20 urtemuga ospatzeko. Azken urteotan, *Tierra, poemas y música de las esferas* proiektu zientifiko-musikalean aritu da **O' Carolan** -CD formatuan grabatuta-. Dokumentaletarako musika, bost lan diskografiko merkatuan, zuzeneko DVDak, makina bat kolaborazio..., horra Aragoiko talde honen ekarpenak. Bere kalitate instrumentalak eta musika tradizionalaren kontzeptu berritzaileak Europa guztiko agertokietara eraman dituzte.

**KIDEAK:**


**Susana Arregui:** biolina, biola, nykelharpa / **Pilar Gonzalvo:** harpa irlandarra, akordeoi diatonikoa / **Julian Ansuategui:** bodrhan, panderoak, udua, perkusio txikiak / **Ernesto Cossío:** gitarra akustikoa / **Miguel Ángel Fraile:** whistles-ak, uilleann gaita, boto-gaita, duduk-a, akordeoi diatonikoa



## KULTUR

Erakusketa indibidualen ziklo honetan parte hartzera gonbidatutako artistek ikusleei zuzentzeko modu berbera partekatzen dute. **Abigail Lazkoz**, **Bego Antón** eta **Luis Vassallo** ustekabekoarekin aritzen dira solasean. Ikuspegi berri baten aldeko apustua egiten dute, ikuslearen begirada alderantzikatuta. Haietako bakoitzak bere diziplinatik egiten du, bere mugak ikertuz eta halako sorpresa-efektu bat bilatuz. Horrela,

**Abigail Lazkozek** beste dimentsio eta beste eskala batera eramaten du ilustrazioa, lurralde hibrido batean. Bere aldetik, **Bego Antónek** fotografia dokumentaletik jorratzen du gertaera historiko bat, eta bisitariaren esku uzten du zer den mitoa eta zer den errealitatea haztatzea. Eta **Luis Vassallo** margolariak ibilaldi bat eskaintzen du margolan baten sorreran zehar, hasierako trazuetatik margolana bukatu arte, tarteko aldaera guztietatik iraganik.



# ERA KUSKE TAK



## BIODÔME

**ABIGAIL LAZKOZ**  
ERAKUSKETA

Komisarioa: **Alexandra Baurès**

### TAFALLA

CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA

**Ekainaren 30etik uztailaren 25era**

Astelehenetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara,  
igande eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara  
eta 19:00etatik 21:00etara.

*Biodôme* Montrealeko zoologiko bat da, museo biziduna, aurrendaria, animalien ekosistemak (landaredia, argitasuna, tenperatura eta urtaroak) errepikatzen dituena, eta, horri esker, interakzio naturala dute ingurunearekin. **Abigail Lazkoz** (Bilbao, 1972) egileak zera proposatzen digu: Tafallako erakusketa-gelara eramatea izaki bizidunen eta habitataren arteko harremanari behatzeko grina hori, baina kasu honetan gizakiongana aplikatuta. Gizakiaren arrastoari erreparatuko dio gizabanako edo talde gisa, eta pertsona gramatikalak erabiliko ditu -ni, zu, hura...- konbentzio gisa esperientzia horiek kontatzeko. Eta, horretarako, espaziora zabaldutako marrazkia erabiliko du, halako moldez non paper gainean egindako obra batzuk elkarrizketan hasiko baitira eskultura, pintura eta beste hainbat tramankulurekin.



**Ekainaren 30ean, ostirala**

12:00

**ERAKUSKETA INAUGURATUKO DA**

artista bera bertan dagoela.

**18:00etatik 20:00etara**

**PLASTIKA-TAILERRA**

Marrazkia eta collagea ezagutu nahi dituzten guztientzat. La **Chincheta Brunak** emana. *Sarrera librea*, izen-ematerik gabe



## HAIEK DANAK SORGINAK

**BEGO ANTÓNEN** ERAKUSKETA,  
**SAUVAGEREN** PARTE-HARTZEAREKIN

Komisarioa: **Alexandra Baurès**

### BERTIZ

BERTIZKO JAURERRIKO PARKE NATURALA,  
LORATEGI HISTORIKOA

**Uztailaren 20tik irailaren 4ra**

Egunero zabalik, 10:30etik 13:30era  
eta 16:00etatik 19:00etara.

Erdi Arotik XVII. mendera arte, Euskadiko eta Nafarroako eremu euskaldunetan sorgin-ehiza egin zen Inkisizioak hala aginduta, eta, hain zuzen, Zugarramurdikoa dugu prozesu denetan ospetsuena. Inoiz ez zen frogatu salatutako gertaeren egiazkotasuna, baina, halere, dozenaka emakume bidali zituzten sutara. *Haiek Danak Sorginak* argazki-seriean, **Bego Antón** (Bilbao, 1983) artistak emakumeen testigantzak hartzen ditu oinarri, inkisidoreek torturaren bidez lortutakoak, egundaino iraun dutenak. Proiektua gertalekuetan barna ibiltzen da, baso, leize eta baserrietan, eta ustezko sorginkeriak

eszenifikatzen ditu, hala nola zeremoniak, orgiak edo infantizidioak. Halaber, emakume haiek jazarpenaren mende bizi izan zuten desesperazioa ere ekartzen du gogora. Aurpegia jarriz egiten die gorazarre. Halaber, naturarekin zuten lotura goraiatu (haietako asko belar-biltzaileak eta sendalariak ziren) eta haien bizimodu librea aldarrikatzen du (batzuk ezkongabeak ziren eta ugalketa kontrolatzen zuten); hain zuzen ere, arrazoi horientatik ziren mehatxu erregimen katoliko berriarentzat.



**Uztailaren 20an, osteguna**  
12:00

**ERAKUSKETA INAUGURATUKO DA**  
artistak berak bertan direla.

## UDAKO KOADERNOA

**LUIS VASSALLOREN**  
ERAKUSKETA

Komisarioa: **Alexandra Baurès**


### AGOITZ

KULTURA-ETXEA

**Del 4 al 30 de agosto**

Asteartetik larunbatera, 11:00etatik 14:00etara  
eta 19:00etatik 21:00etara.

Luis Vassallo (Madril, 1981) tradizio luze baten oinordeko sentitzen da, eta atsegin du miresten dituen pintoreak aipatzea. Horrela, museoetako hormetan zintzilik dauden margolanei behatuz –marrazten, erreproduzitzen eta ulertzen duen eskuaren bitartez– orainaldiko edo etorkizuneko bere obren ideiak agertzen dira, eta motibo horiek aldatuz joaten dira egoera iraunkor bat lortu arte. Udako ekipajea dakarrela iritsiko da Agoitzera **Vassallo**, eta, handik, sortu berri dituen marrazkiak eta pinturak ateratzen ditu, zenbait serietatik datozenak. Instalazio moduan erakusten ditu, narrazio lineal batetik ihesi, eta konexio berriak aurkitzen ditu, errepikatzen diren formak azpimarratuta. Margolanekin batera, zirriborroak ere ageri dira, zeren eta **Vassallo** bere sormen-prozesurako sarbide zuzena eskaintzen baitio ikusleari. Baliteke ikusleak hor giltzak aurkitzea egilearen olio-pinturetan murgiltzeko gero. Agertoki horietan, abstrakzioa eta figurazioa bizi dira elkarrekin, eta kolorea ez da ezkututzen haietan; gainera, antzinako denboretako pinturen oihartzuna iristen da leku haietaraino.



**Abuztuaren 4an, ostirala**

**12:00**

**ERAKUSKETA INAUGURATUKO DA**

artista bera bertan dagoela.

**Abuztuaren 30ean, asteazkena**

**11:00etatik 13:00etara**

**SORMEN-TAILERRA**

**(5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat)**

La Chincheta Brunak emana.

*Sarrera librea;*

izena eman behar da aurretik, abuztuaren 4tik 28ra, kultura-etxean (leku mugatuak).